

MARTIAL'en

ZIRI-BERTSOAK



ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL'EK

LATERATIK EUSKERATUTA

## MARTIAL'en ZIRI-BERTSOAK

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek

Lateratik euskeratuta

## MARTIAL OLERKARIA

Jesukristo'ren ondoko 40-garren urte-inguruan jaio zan, Epai-laren lenengoan (Epig X, 24, 1; IX, 52, 3), Bilbilis izeneko urian, gaurko Kalataiud inguruan. 64-garren urtean (Neron'ek eragindako uriaren kiskaltze-garaian) Erroma'ratu zan, ospe ta diru-billa, nunbait. 98-garrenean, barriz, sorterrira biurtu zan. Uri nagusian lortutako laguntasuna amaitu yakon-eta, Plinio Gazteak emondako diruz egin al izan eban errirako ostera au. Ain zuzen be, egin eutson goralpen baten alderako, Pliniok, bear zan dirua eskuratu eutson. Bein sorterrian, Martzela andra aberatsari eskerrak, azkenengo urteak patxadaz emoteko aukera izan eban.

Zelako bizimodua eroan Martial'ek Erroma'n? Ezbear gorrian bizi nai ez ba'eban, nundik edo andik, zelan edo alan, sos apur batzuk zuzendu bear. Ta, bearriزانak heartuta, asi zan orduko agintari ta andikiai buruz bertso ederrak, sarritan koipetsuak, asmatzen. Ortik etorkion laguntzari eskerrak, gosea bardindu ta bizikera obeagotu alizan eban. Irabazi-bearrak askotan asmamena zorroztu egiten dautso. Batetik bestera, bazter guztiak arakatuaz, orduko gizartea, goraberak eta gizonen egokera sakonki ikasten dauz. Ereti ona, ziñez, gero bere ziri-bertsoetan askotariko giza-izakera ta egokerak guri ezagutuarazoteko. Ori dala-ta, olerkaria ez ezik, gizarte-ikertzaille ta erakusle billakatuko yaku, gaurko gizon jakingaleentzako.

Ta zer dira izatez ziri-bertsoak? Gure egunetan, eleder-mueta herezia. Izenak berak adierazten dauanez, ziri andik, ziri emendik,

Maguregi'tar Begoña'ri:

Gure zirikatzaille zorrotzak ex eutzun  
barrerik eragingo. Beti be sen baten.

Ezbear mingotsak be ex zaitue estutuko.  
Beti ere sen baten: ixillik, maitatzen.

norbait edo zerbaiten alderdi barregarri, ezezgarri edo begiragaria azaltzen dauskun neuritzta. Orixes nai dau argi ta garbi gure euskal-itzak. Alabaiña, Gerkar, Errromatar eta euron kimak diran erdera guztien "epigrammak", gaurko egunean ori berori esan gura dauan arren, asikeran beste esangura bat eukan. Au da: Epi-gramma, gaiñean idatzita; Grezi'n, lenengotan, izen edo egipen baten gomuta illobi ta oroitarrieta iraunaro zoteko olerkariak erabilten eben neuritz-era bat. Idatzi-ala, olerki batzuk luze samarrak, beste batzuk laburrak gertatzen ziran. Lenengoai eresiak eritzen; bigarrenai, epigramak. Luzaro barik, askotariko sentipenak eta biozkadak agertzeko berebizikoak zirala-ta, asi ziran orduko olerkariak arlo barriak lantzen. Illobi ta oroitarrietan barik, esku-erakutsien txarteletan, eguneroko goraberetza zko bertsoetan ta lagunarteko bizitzazko idazkietan, epigrametzaz baliatu oi ziran. Barruko sentipenak-eta zeatz eta bizi azaltzeko bide egokia, benetan. Azkenik, egiteko berezia billakatu zan epigrama-gintza. Orixes da gaurko egunean daukan esangura berezia. Biotariko epigrametan aritua da gure idazlea. Ta bide barri orretan gidari ez arren, Martial, bai nagusi. Bestean, lenen naiz bigarren aintzagarrirri ta goragarri beti.

Martial oso irakurria izan da gizaldietan zear. Erderetara itzulia bere bai. Ta antzeratua, zer esanik ez. Ondorengo idazleengan alkuntza andia izan dau. Erasmo'k, Voltaire'k, Quevedo'k eta beste askok epigrama, ziri-bertso, politak idatziz dabez. Euskaldunen artean ez ei da olakorik egin (betiko leloa). Baiña, elburra lez, ziri-bertso berarizkorik egin ez ba' lira be, bestelako bertsoetan, bide batez, bai asmau dirala ziri-bertso ederrak! Esaterako, gure bertsolariak alkar zirikatuaz, lagun-urkoa jorratuaz, munduko goraberak arrotuaz eta bat-bateko euren ateraldiakaz, ziri-bertso itzalak boteak dira askotan. Aukeran daukaz irakurleak, bertso-papel ta idaztietan, begi zoliz

arakatu ezker. Artu dagigun onako au, Bilintx'ek asmau ta adar-jotzaillearen aurka jaurtirikoa:

Mando baten gañean  
Domingo Kanpaña:  
Ez dijoa utsikan  
Mando orren gaña.  
Azpian dijoana  
Mandoa da, baña  
Gañekoa ere bada  
Azpikoa aña:  
Mando baten gañean  
Bestea, alajañal

Martial'ek jorratutako badezpadako erritarrak eta bertsolari min-zorrotzak astindutako gizon arrotxuak, leku baten azka, zaparradaren ondoan.

Gureak ain landuak eta biribilduak ez, geienetan. Bertsolariak ez baitau astirik artzen oldoztu ta papelera, auznartu ta neur tuta gero, aldatzeko. Bearbada, erritar-kutsuz, zakarrago ta arlotteago ere bai izango dira. Baiña, bizitasunez, gatzez eta lotsarrengoaiko-maikorik-ezaz, askotan klasiku batenak baizen jator eta sarkor dirala nork ukatu!.

1896-garren urtean, Eusebio M. Azkuetaren PARNASORAKO BIDEA'n amasei ziri-bertso polit argitaratu ziran. Andik artu dautzut izena. 1947 ta 1948-garren urteetan, Lontzi Abak bere Ipuintxuak emon euskuzan. Ipuinak, alegiak, izkirrimiriak eta ziri-bertso ugariak dakarrez bere idaztitxo biak. Otxandio'ko Arrese'k, bere liburuko "Ipuinak" saillean, ziri-bertso politak damoskuz. Serafin Baroja'k ere naiko idatzi eban era orretan.

Egia, Martial'ek aukeratu eban olerti-era bigarren maillakoa da. Alabaiña, berarizko tankera emon eutson gure olerkariak.

Bere-berea eban izakera itsasten daki bere olerkietan. Berak oinarritu eban epigrama, gure egunetaraingo dakarren esanaien.

Lur-azalean agertzen dan guzti-guztia olerki-gai biurtzen da Martial'en idazkortzan. Iñor mindu barik, gero: "parcere personis, dicere de vitiis" (Epigr. X, 33, 10)" Akatsak azaldu ta notiñak estaldú". Orra bere jokabidea. Mingarri ez diran bertsoetan, bai agertu oi ditu egiazko izenak. Bestela, guzurrezko izen bategaz, olako edo alako giza-mueta margoztu oi dau. Ez da zirtolari utsa. Barre egin, eragin ta giza-barruan sakontzen ondo daki "Hominem pagina nostra sapit". (Epigr. X, 4, 10)" Gure idazkiak, giza-usaiña darioe" Labur, mamitsu, zeatz, sakon, jator, gozo, bioztun, zorrotz eta alai dagerkigu. Edozein gertaera naiz egokera, epigrama-gai da Martial argiarentzat. Iruzpalau ikutu, gatz apur bat eta orear arrotzen asten daneko, eztenkada zorrotza.

Or ziri-bertsoa, barrez eta barre-guraz itxiten gaituana: urren-goa irakurteko gogoz, irakurritako aztu barik. Bizkor eta bizi dabil jazoerarik jazoera, irribarretsu ta maltzur. Gordin eta zantar samarra ei da. Larregiz ez, beintzat. 1172 olerki, 9.000 bertso, amabi liburutan argitara emon ebazan. Ainbeste neuritz idatzi ta 150 bat dira zantartzat jo daikeguzanak. Gaiñera, ain grazi andiagaz idatzi ta, txarrerako baiño barre egiteko gogoa geiago sortu oi dau, milikiegi ez dan irakurlearenan. "Lasciva est nobis pagina, vita proba." "Idaztankeran lizun, bizikeran zindotasun" (Ep. I, 4).

Lagunai bertsoak atara, eskeiñi ta polito-polito bertso-mordoska ederra osotzen eban. Orduantxe, batu ta gutun baten zabaldzu. Ospe andia irabazi eban-da, berealako baten zabaltzen ziran bere idazkiak bazter guztieta. Irakurle ugariak eta txalo-zaleak ba-zitun nunai. Martial jakitun egoan eta bere irakurleen

on-iritzian babestuta, lasaiago jasaten ebazan etsaien esamesak eta barru gaiztokoen berba mingarriak.

Dana-dala, gizon ta olerkari andia zan. Gure egunetaraingo edatu da aren ospea ta arenganako zalea. Il zanean Plinio Gazteak auxe idatzi eban beragaitik: "Gizon argia zan, sakon ta zorrota, bere idazkietan gatza ta beaztuna, bakuntasunez, nastetan ekiana".(Epist. III,21) Batzutan goratua, beste batzutan zaputzua, bizi-modua ondo aitzen ikasi eban. Erdiko maillan jarri zan. "Nec volo quod cruciat nec volo quod satiat" (I,57) "Ez dot nai larritu, ez asetu nagikeanik". "Sit nox cum somno, sit sine lite dies" (II,90) "Quod sis esse velis nihilque malis; summum nec metuas diem nec optes" (X,47) "Nulli te facias nimis sodalem: gaudebis minus et minus dolebis" (XII,34) Horati'ren urrezko erdi-mailla artu bide dau elburutzat eta Seneka'ren eroapena bide-laguntzat. Horati'k baizen zeatz eta Seneka'k baizen sakon esaten ez ba'daki ere.

Orra zure eskuetan Martial andiaren ziri-bertso batzuk. Ez onenak, ez jakingarrienak: euskeratzeko errezenak. Al ba'dozu, jo idaztitegi andietara ta iruntsi Martial-tasun ta Martial-keri guztiak. Ez yatzu damutuko ta arrazoia emongo dautsozu idatzi ta igarri ebanagaitik: "Toto legor orbe frequens et dicitur" Hic est"; quodque cinis paucis, hoc mihi vita dedit" (V,13).

Olerkari andi guztiak, izen andiaren garramura nabaitu dabe buru-biotzeta ta buru-eritxi samarrak izan dira. Zuzenbidezko andi-naia. Horati'k "non omnis moriar", ziurtasun ta arrokeriz; Martial'ek "Sum... pauper... sed non obscurus...", ziur-asun ta arpegi-andiz; Orixe'k, apaltasunez, bere burua ezkutatu ta: "Geroak esan beza / erri bat izan zan / edo-ta ats emaiogun / ontan iraun dezan".

Bego bakean ta aiputan gure antziñako auzokoa ta berak iñori opaturikoa gerta bekio, eskatu ebanez: "non aliter cineres mando iacere meos" (I,88).

Ta gure bertsolari-aurkezleak esaten dauanez, orain Marcial'eri puntua:

#### EUSKERATZAILLEAK

#### AD LECTOREM

Hic est quem legis ille, quem requiris,  
toto notus in orbe Martialis  
argutis epigrammaton libellis;  
cui, lector studiose, quod dedisti  
viventi decus atque sentienti,  
rari post cineres habent poetae.

(I, 1)

#### IRAKURLEARI

Irakurtutene ari zarean  
ta lera andiz billa dozuna,  
Martial da, ludi guztian ziri-  
bertso zorrotzak erazaguna.

Irakurle on, bizi-jakitun  
dalarik emon dautsozun aintza,  
oso olerkari gitxik izaten  
dabe, etorrita ere eriotza.

(I, 1)

#### AD AVITUM, DE SUIS EPIGRAMMATIS

Sunt bona, sunt quaedam mediocria, sunt mala plura  
quae legis hic: aliter non fit, Avite, liber.

(I, 16)

#### ABITO'RI BERE ZIRI-BERTSOETZAZ

Onak, erdizkakoak eta beste asko txar  
dozuz. Bestela, Abito, ezin gutunik irar.

(I, 16)

## DE GELLIA

Amissum non flet cum sola est Gellia patrem;  
Si quis adest, jussae prosiliunt lacrimae.  
Non luget quisquis laudari, Gellia, quaerit;  
Ille dolet vere, qui sine teste dolet.

(I, 33)

## GELITZAZ

Geli'k, bakarrik dagoanean,  
aita galdu daualako  
ez dau negarrik egiten. Iñor  
aurrean ager orduko,  
berariz negar egiten daki.  
Gora-naiez egindako  
negarra alper da. Lekuko barik  
egiña, bai, egiazko.

(I, 33)

## DE DIAULO MEDICO

Nuper erat medicus, nunc est vispillo Diaulus:  
quod vispillo facit, fecerat et medicus.

(I, 47)

## DIAULO OSAGILLEA

Diaulo osagille zan, oin illobigin.  
Sendagin zala ta orain dagi bardin.

(I, 47)

## AD LAELIUM

Cum tua non edas, carpis mea carmina, Laeli.  
Carpere vel noli nostra vel ede tua.

(I, 91)

## LELIO'RI

Zure bertsoak agertu ez ta  
nireakaitik gaizki esaka  
zabiltz, Lelio. Ager zureak  
edo ez jardun nireen aurka.

(I, 91)

## IN CINNAM

Versiculos in me narratur scribere Cinna:  
non scribit, cuius carmina nemo legit.

(III, 9)

## ZINNA'REN AURKA

Zinna'k bertsoak atara omen  
daustaz. Iñok ez leidu ta idazten?

(III, 9)

## IN MALE RECITANTEM

Quid recitaturus circumdas vellera collo?  
Conveniunt nostris auribus ista magie.  
(IV, 41)

## IZLARI TXAR BATERI

Zergaitik biltzen dozu lepoa  
zapi orreikaz, danen aurrean  
irakurteko orduan? Obe  
zapiok gure belarrieta.

(IV, 41)

## DE PHILONÉ

Numquam se censasse domi Philo iurat, et hoc est:  
non cenat, quotiens nemo vocavit eum.

(V, 47)

## PHILO'TZAZ

Philo'k diñosku  
ez daula iñoz  
bere etxeán  
apaldu; egiz:  
Sekulan ez dau  
jan aparirik,  
iñork berera  
ots-egin ezik.

(V, 47)

## EPITAPHIUM PANTAGATHI

Hoc iacet in tumulo raptus puerilibus annis  
Pantagathus, domini cura dolorque sui,  
vix tangente vagos ferro resecare capillos  
doctus et hirsutas excoluisse genas.  
Sis licet, ut debes, tellus, placata levisque,  
artificis levior non potes esse manu.

(VI, 52)

## PANTAGATO' REN ILLARTITZA

Illobi onetan Pantagato datza,  
oraindikan ume zala alde egiña.  
Bere ugazabaren ardura mingotsa.  
Auxe izaten zan bere zeregiña:

Motots ugaria Ari ebatea,  
artazi-orratzak ozta-ozta alkarr  
ikutuaz eta mosu laztuxea  
txukun ipintea, moztuagaz bizar.

Oi lur, olan izan bear dozun arren,  
bigun eta gozo arentzat ba'zara  
be, ezelan bere ez zara izanen  
gure edertzalea bestean samurra.

(VI, 52)

## IN INVIDUM

Laudat, amat, cantat nostros mea Roma libellos,  
meque sinus omnes, me manus omnis habet.  
Ecce rubet quidam, pallet, stupet, oscitat, odit.  
Hoc volo; nunc nobis carmina nostra placent.  
(VI, 60)

## BEKAIZTI BATERI

Erroma'n danak nire idazkiak  
goratu, maite ta abesten dabez.  
Esku ta sakel guzti-guztiak  
or narabille, urian, maitez.  
  
Urlia gorri, zuri ta arri  
egiñik ei da; ta arrauzi egin,  
gorrotoarren. Auxe pozgarri!  
Orain neuritzak ditut atsegin.  
(VI, 60)

## IN FAUSTUM

Nescio tam multis quid scribas, Fauste, puellis:  
hoc scio, quod scribit nulla puella tibi.  
(XI, 64)

## PAUSTO'RI

Ez dakit zergaitik  
idazten dautsezun  
ainbeste neskatal  
gaztei, Pausto kutun.

Obeki esanda,  
ba-dakit zergaitik:  
batek ere ez dautsu  
idatzi raindik.

(XI, 64)

## LEKU-NOTIÑEN

IZENAK	ORRIALDEAK
Abito	9
Diaulo	10
Erroma	14
Geli	10
Lelio	11
Martial	9
Pantagato	13
Pausto	14
Philo	12
Zinna	11

